

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



GAZTELEKUA

'Paintball' egitera joango dira gaur

Paintball egitera joango dira Gaztelekukoak, gaur, 10:00etan Zinkoenean elkartuta. 14:00ak arte izango da irteera, eta 10 euro eraman beharko dira. Uztailaren 24an piraguismoa egingo dute, eta izena eman behar da, hgaztelekua@gmail.com helbidean. ||

UDALA 'UDAPARKEAN'

Udaparkean, udaran «finkatuta»

'Udaparkean 2018' antolatu dute, datorren ostegunetik larunbatera; eta bertan, arte disziplina desberdinak eta adin guztientzako ekintzak egongo dira ikusgai edota parte hartzeko.

ARTE disziplina ezberdinak uztartuz eta adin guztietarako, eskaintza anitza eta zabala prestatu du Udalak, Ave Maria parkean, datorren asterako.

Udaparkean egitasmoaren hirugarren edizioa aurkeztu zuten atzo, datorren ostegunetik larunbatera, Ave Maria parkea gozamenerako toki bilakatu nahi duena, «adin guztietarako jendearentzako», azpimarratu zuen Luis Intxauspe alkateak. «Finkatutako ekitaldia» dela nabarmendu zuen alkateak. Eskerrak eman nahi izan zizkien, programa aurrera ateratzea posible egin duten guztiei, eta «bide interesgarria» zabalik dagoela gogoratu zuen.



Alkate, Udaleko zinegotzi eta teknikariak, atzoko aurkezpenean.

Diziplina eta adin desberdinak uztartzen dituen ekitaldia

Adin guztietarako antolatu dira ekintzak, eta ostegunean hasiko dira, arratsaldeko 18:30etan, Ttapa Ttapa ibilaldiarekin. Adinekoei zuzenduta dago, eta Atsegindegitik abiatu eta Ave Maria parkean amaituko dute paseoa. Hala ere, aurten bada berrikuntza nabarmen bat ibilaldian. Euskarabenturako gazteekin batera egingo dute ibilbidea, eta beraiekin batera, Broken Brothers Brass Band taldekoak joango dira, paseo musikala eginez.

Ostegunean bertan, behin ibilaldia amaituta, kale antzerkia eskainiko da 20:00etan. Denontzat Ganso&Babo Royal Bizkaiko Clown taldea da, eta hitzik gabeko ikuskizuna eskainiko du Ave Marian. Musika ere gehitzen dio ikuskizunari.

Eta eguna amaitzeko, ondoren, 22:00etan, Koban taldea-

ren kontzertua izango da. Donostian sortu zen taldea, eta zazpi musikari gazte osatua dago; bost neska eta bi mutil. Estilo desberdinak nahasten dituzte, donostiarrek.

Dantza, zinea eta kale antzerki parte hartzailea, ostiralean

Ostiralean, Xip-Xap Transhumancia kale antzerki ibiltaria hasiko da 19:00etan. Parte hartzailea da eta familia guztientzat dago moldatua. Lleidatik datoz, eta parkean zehar ibilbidea egingo dute txontxon-gilozko animaliekin.

20:00etan, berriz, Kukai & Brodas Bros Topa dantza ikuskizuna antolatu da. Parkera egokitua dago. Eta azkenik, 22:00etan, *Paddington 2* pelikula jarriko dute.

Eta azkeneko egunean, larunbatean, beste bi saio egongo dira. *La Trócola Circ*, *Emportats* zirkoa 20:00etan hasiko da. Oso koordinatua da eta zehatza.

UZTAILAK 19, osteguna

18:30etan, Ttapa-Ttapa ibilaldia Atsegindegitik Ave Maria parkera, Euskalbaenturakoekin eta Broken Brothers Band musika taldearekin.

20:00etan, Ganso&Cia. Babo Royal Kale Antzerkia.

22:00etan, Kontzertua: Koban taldea.

UZTAILAK 20, ostirala

19:00etan, Xip-Xap. Trashumancia

Kale Antzerkia familiarentzat.

20:00etan, Kukai & Brodas Bros Topa Dantza. Denontzat.

22:00etan, Zinea: *Paddington 2*. 103 minutu. Guztientzat.

UZTAILAK 21, larunbata

20:00etan, Zirkoa: *La Trócola Circ*. *Emportats*. Guztientzat.

22:00etan, Kontzertua: *Imanol Jazz*. *Ainara Ortega*, *Iñaki Salvador*, *Karlos Gimenez* eta *Petti*. Guztientzat.

Eta amaitzeko, gaueko 22:00etan hasita, Imanol Jazz taldearen kontzertuan, Imanolen errepertorioa eskainiko dute Ainara Ortega hernaniarrak, eta Iñaki Salvador, Karlos Gimenez eta Petti musikariek.

Udaleko sail ezberdinen arteko elkarlana

Malores Etxeberria euskera teknikariak, bere aldetik, azaldu zuen «Udaleko sail ezberdinen arteko elkarlanaren emaitza» izan dela egitasmoa: kul-

tura, parekidetasuna, zerbitzu sozialak, gazteria, turismoa, euskera, hezkuntza... Teknikari eta zinegotzi desberdinak egon ziren aurkezpenean. «Helburua da, udaran Hernaniko aisialdi eskaintza zabaltzea, haur, gazte eta helduentzat; eta gainera, naturarekin uztartuz, Ave Maria parkea bezalako paraje batean».

Hiru egunetan zehar, afari-merienda egin daiteke parkean. Lakari kooperatibak, jakiak salduko ditu parkean bertan. ||

IKASTAROA

Euskal Herriaren historiarako, izenematea

Beñi Agirrek, datorren astean lau egunetan, ikastaroa eman du Biterin, Euskal Herriaren historia gai hartuta. Gaur arte eman daiteke izena, herriaerrotzen@gmail.com helbidean. ||

ERREMONTEA

Barrenetxeak gaur San Fermin finala

Barrenetxeak gaur jokatu du San Fermin Torneoko finala, Juanenearekin batera. Aurkariak, Ezkurra II eta Endika izango dituzte. Finalerdian, astear-ean, Juanenea eta Barrenetxeak 32-40 irabazi zieten Urriza eta Etxeberriari. ||

MUSIKA

Jazz musika, asteburuan

Jazz Hernani ekimena berreskuraturako dute aurten, Kaxko Elkartearen laguntza eta babesarekin. 17garren edizioa izango da, beti bezala Tilosetako pasealekuan antolatuko dena: larunbatean eta igandean, hiru kontzertu guztira. ||

ATLETISMOA

Aitor Urkia ez da finalean egongo

Aitor Urkiak atzo amaitu zuen bere ibilbidea Finlandiako 20 urtez azpiko Munduko Txapelketan, Tamperean. Hernaniarrak ez zuen finalerako txartela lortu eta 60,08 metroko jaurtiketa batekin kanporatua izan zen mailu jaurtiketan. Bere markatik urruti geratu zen. Beste bi nulo egin zituen. ||

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariarorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

MASUSTA EKODENDA

Elikadura Biologikoa
Osagai naturalak
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...

• MEDIRU NATURISTAREN KONTSULTA
• TMOA ETA DEPORTIBO MASAJEA, ERDITIKO PRESTABEA
• GIMNASIA BITALA
• POGA KLASEAK
• ZEN MEDITAZIOA
• TERAPIETARRA
• ESPAZIO ALORAGAI

ANDRE KALEA, 43 - HERNANI
Tel.: 943 555 710

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

MARISCOS HERNANI

Javier Juanet
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos.hernani

Tripontzi jatetxea

PINTXOK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOAK: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / Gauzez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA **GAUR** Goizean, oraindik ere, lainoak ikusiko dira, baina desegiten joango dira egunak aurrera egin ahala eta arratsaldean, orohar, giro eguzkitsua gailenduko da. **Min.19° / Max.25°**

BIHAR Giroa ezegonkortsu egingo da eta egunean zehar ekaizta amiskua egon daiteke. Hala ere, kostaldean ez dira espero. Haize aldakorra, nahiz eta iparraldean nagusitu. **Min.18° / Max.26°**

ARRAUNA



Edurne eta Gurutze Yarza hernaniarrak hankeko postuetan traineruan.

Edurne eta Gurutze Yarza ahizpak, 'Zergatik ez?' txalupan

Hernaniarrak Orio-Bilbo-Orio egitasmoaren barruan daude, 35 eta 57 urte bitarteko beste 30 emakumerekin batera. Gaur irtengo dira, 07:00etan.

'ZERGATIK EZ' egitasmoa gaur hasiko da Orion goizeko 07:00etan eta bertan murgilduta daude bi hernaniar. Edurne eta Gurutze Yarza Odriozola ahizpak. Erronka haundia dute aurretik. Beste 30 emakumerekin batera eta lau etapetan Orio-Bilbo-Orio beteko dute arraunean traineruan.

Pasa den urtean sortu zen erronka aurrera eramateko ideia eta 40 urte inguru betetzehar edo betetako emakume talde bati sortu zitzaion. Zerbait berezia egin nahi zuten eta Zergatik ez? egitasmoa martxan jarri zuten.

Hasiara batean arrauna egitea edo arraun egiten ikastea zen helburu bakarra, baina helmuga bezala zeharkaldi bat egitea bururatu zitzaion. Beti ere, Orio Arraun Taldearen laguntzarekin, 32 emakumek eman zuten izena eta ia denak jarraitzen dute erronkan.

Lau egun iraungo du

zeharkaldiak. Gaur irtengo dira eta txandakatuz joango dira. Uztailearen 15ean Orion behar dute izan berriz ere. Edurne eta Gurutze Yarza hernaniarrentzat arrauna ez da gauza berria. Hernaniko nesken arraunean aintzindariak izan ziren eta Hernanik nesken trainerua uretaratu baino ia 25 urte lehenago ibili ziren arraunean Hernaniko taldean Alatzne Mutiloarekin batera, besteak beste.

Lau etapetan 198 kilometro Edurne 1973an jaio zen eta Gurutze 1974an. Biak 45 urteren bueltan daude eta erronka haundia da beraientzat, nahiz eta beste egitasmokide batzuekin alderatuta eskarmentu haundiagoko arraunlariak izan. Asko dira inoiz arraun egin gabeak pasa den urteko udazkenean arraun egiten hasi ziren arte. Horregatik agian hankeko joaten dira txalupan.

Nahiz eta hernaniarrak

izan gaur egun Gurutze Orion bizi da eta ahizpa eta biak animatu ziren egitasmoan parte hartzera.

Lau etapetan 198 kilometro beteko dituzte. Orioko Arraun Taldeaz gain, lagundu dute Orioko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak; azken honek, Tknika eta Lanbide Heziketaren bitartez, Tknika trainerua utzi die.

Larunbatean, eguerdian, iritsiko dira berriz ere Oriora Lehendabiziko etapan Oriotik Bermeora osatuko dute. Guztira 52 kilometro. Bihar, bigarren egunean, 07:30etan Bermeotik irten eta Portugaletera iritsiko dira, 56 kilometro eginez. Bihar bertan, 12:00etan, harrera egingo diete Bilboko portuan. Ostira-lean 64 kilometro beteko dituzte Portugaletetik bueltan Ondarrura eta larunbatean iritsiko dira Oriora etaparik laburren egin eta gero; 26 kilometro. Larunbatean 12:30etan espero da iritsiera. ||

BERRIAK ELKARTEA

Beherapen Azoka, gaur eta bihar

Berriak Elkarteak antolatu du, Plaza Berrin, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara. Herriko hainbat denda izango dira.

GAUR eta bihar Beherapen Azoka jarriko du, Berriak merkataria eta ostalarien elkarteak, Plaza Berrin, goizeko 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Herriko hainbat dendak hartuko dute parte,

eta «kapritxoren bat eskuratzeko aukera bikaina» izango dela aurreratu du Berriakek.

Hernaniko merkatarien elkartetik diote: «Oporretara joateko gertu zaudetela aprobetxatuz, Beherapen Azokatik pasatzea baino plan hobea go-

rik ez dago. Eskaintzen duten kalitate ezin hobea prezio onetan gozatu ahal izango duzue».

Hurbiltzen diren hernaniar edo ez hernaniarrek dendetan dagoena prezio hobean aurkituko dute. ||

FORU ALDUNDIA GIZARTE ZERBITZUAK

Zaintzaileei jarraipena egitea eta laguntzea adostu da udalekin

Aurreikusi dute jarraipen hori 2019an hasita, familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen zuzendua.

GIZARTE Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaia astelehenean egin zuen bileran, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek, Eudel ordezkari dutela, adostu zuten Foru Aldundiak eta udalek mendekotasun prestazioak jasotzen dituzten pertsonen zaintzaileen jarraipena egingo dutela eta behar duten laguntza emango dietela; guztira, 10.353 pertsona daude lurralde guztian egoera horretan.

Jarraipenak familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzen duten

pertsonak hartuko ditu, nahiz eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonak ere sar daitezkeen salbuespen gisa udalerrri txikietan. Kostua urteko 632.272 euro izango da, teknikarien eta administrarien urteko lan orduak, eta lanaldi osoan ari diren pertsonen kostuak barne direla.

Nolanahi ere, Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak ohartarazi du aurreikusi dutela adostutako eredu 2019an abiaraztea, baina oraindik falta dala udalekin «xehetasun eta irizpideak lantzea». ||

41-42AN JAIOTAKOAK



Tilosteko eskalaretan atera zuten argazkia.

Bazkaritan elkartu ziren Errioguardan

Errioguardan, bazkaritan elkartu ziren 1941 eta 1942an jaiotakoak; hau da, aurtengo 76 eta 77 urte betetzen dituztenek. Bazkaria ekainaren 16an egin zuten eta egun ederra pasa zuten denek elkarrekin. Garai bateko eta oraingo kontuak zituzten hizketagai. ||

IRAGARKI MERKEAK

Funtzionamenduan dagoen **automekanika tailerra** jubilariaogatik alokatzen da, gerora erosteko aukerarekin. Deitu: 943 33 39 28 / 639 538 506

Salgai **Nissan Primastar 2.0**. DCI 115 CV. 2007 urtea. Enbragea aldatu berria. ITVa pasata. Barrutik aialatuta, ohea egiteko. 10.500 € negoziagarri. Deitu: 627 285 904

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA